

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gaur egun, ohikoa da batxilergoa bukatu ondoren, unibertsitateko edo beste mota bateko ikasketak egitera kanpora joatea. Ohikoena pisu batera edo ikasle egoitza batera joatea da, baina askotan oso garestiak dira eta pisu batera joatea ez da erraza izaten, izan ere, hiri berri horretan askok ez dutelako joan behar den edo bertan bizi den inor ezagutzen eta bakarrik pisu bat alokatzea ezinezkoa egiten zaie.



Horregatik, gure proiektua aplikazio bat sortzea izango litzateke. Bertan, pisu bat bilatzen edo alokatzen ari diren ikasle guztiak sar daitezke. Aplikazioan sartzerakoan, test bat bete beharko dute pisua bilatzen ari direnak, bertan beraien gustua, apetak, nahiak, eskakizunak... jarriz, eta horrela aplikazioaren logaritmoak interes eta nahien arabera elkartuko ditu, baita beraien interesen barruan egon daitezkeen pisu motak ere. Behin pisukide bat aurkitzerakoan, aplikazioaren bidez, elkarrekin harremanetan jartzeko aukera izango dute eta ondoren, pisukideak izan nahi duten edo ez erabaki.

Modu honetara, aplikazio hau sortuz, gure helburu nagusia pisukideak eta pisua errazago aurkitzea da. Honez gain, galdetegia egitearen beste helburua, pisukideak beraien artean bizimodu erraz bat aurkitzea da, erlazio on eta berdintsu bat edukiz.

